

**Lehendik dauden bizitegitarako eraikinen beheko solairuetan kokaturiko lokaletan etxebizitzak ezartzeko udal ordenantzaren lehen aldaketaren hasierako onarpena.**

Udalbatzak 2014ko azaroaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, hasieran onartu zuen lehendik dauden bizitegitarako eraikinen beheko solairuetan kokaturiko lokaletan etxebizitzak ezartzeko udal ordenantzaren lehen aldaketa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. Artikuluan ezarritakoa betez, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko 30 eguneko epe bat zabaltzen da, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin behinekoa izan den erabakia.

Jendaurreko epearen barruan espedientea ikusgai egongo da Hirigintza sailean, udaletxeko bigarren solairuan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2014ko azaroaren 28an.

ALKATEA

Izptua.: Xabier Cuéllar Cuadra